

Sanpedroak SESTAO

Jaiak bihar amaituko dira baina, hala ere, ekintzek aurrera jarraitzen dute. Hau zortea hau, sestaoarrek dutena. Bertakoa ez bazara ere, zapia lepoan jantzi eta murgildu zaitez Sestaoko kaleetan dabilen jendearen artean.

Zapia jantzi eta zoaz kalera

AINHOA GERRA

Bai luzeak Sestaoko jaiak. Jai egitaraua ekintzez gainezka dago eta Sestaoko Udalak sestaoarrei jaietako zapia erosteko eta lepoan jarrita kaleratzeko eskaera egin die. Oraindik zapirik erosi ez duenak lehenbailehen eros dezala, guztiak amaitu aurretik.

Hamar egun luze hauetan zehar, merkatu txikia egoten den lekuan 'Ferial-a' izango da zabalik. Bertan barrakak egun osoan zehar izango dira irekita, nolako zortea duen frogatu eta esku hutsik edo opariz josita etxera bueltatu nahi duenarentzat.

Egitaraua ikusita antzematen denez, antolatzaileek garrantzia eman nahi izan diete dantza talde folklorikoei. Hau dela eta Sestaoko VIII. Folklore ikuskizuna antolatu dute eta ia egunero leku ezberdinetako dantza taldeak izango dira: 'Concello de Monforte de Lemos' galiziarak, Aragoiko 'Jotos de Aragon', Donostiako 'Eskola' taldea eta abar. Gaur, eguerdiko hamabi

t'erdietan, Triana, Sancosmeiros, Eusko Lorak, Salleko eta Noxa Xente Sestaoko taldeek dantzatuko dute Haur Jaialdi Folklorikoan.

Bihar trakaren zaratarekin batera amaituko dira jaiak Sestaon, baina lehen aipatu bezala, ekintzak uztailearen 3rarte luzatuko dira. Uztailearen bian Zube-roako Maskarada antzetzuko da eta guztiek eguraldia ona izan dadin espero dute. Eurria da jaien



JOSE SAMPEDRO

Buruhandi eta erraldoiak Sestaoko kaleetan zehar ibiliko dira gaur arratsaldean. Herri kirolek ere beren lekutxoak dute jai egitarauan.



etsai garrantzitsuenetariko bat. Tabernetan inoiz baino jende gehiago sartzen da eta askotan, gustokoen duzun talde ado abeslariaren dantzaldi edo berbena bertan behera gelditzen da urak sortzen dituen arazoak direla eta. Batek baino gehiagok gustora salduko lioke arima deabruari honela bere herriko jaiak irauten duten bitartean euririk ez egitea lortuko balu.

EGITARAUA

GAUR

10.00: Haurrentzako parkea.

12.30: Lizarrako gaiteroekin kalejira.

18.00: Haurrentzako Karaoke lehiaketa plazan. Ordu erdi lehenago izango da izen-ematea.

19.00: Buruhandi eta erraldoiak.

20.00: Bonsai erakusketaren bukaera. Argazki erakusketak oraindik jarraitzen du.

23.00: Suziriak Benedikta ibilbidean A.Caballer pirotekniaren eskutik.

23.30: Francisco Rivelles eta bere Mariachiaren eskutik berbena.

24.30: Traka plazan.

2.30: Makrodiskoteka plazan. 'El show de Mister Pinky'.

Sestaoko



Ondo pasa jaietan !!

La Humanitaria, 19 Tel.: 496 09 00 SESTAO



HERRIKO TABERNA

Giro abertzalea

Ferran Doktorea, 2

SESTAO

LIBURUDENDA

LIZARTZA

Plaza San Pedro, 3 - Tel. 4967836
SESTAO



SESTAOko SAN PEDRO JAIK 94
Ekainaren 25etik 29ra

"Parte hartu eta gozatu zure jaietan"
JAI BATZORDEAK jai zoriontsuak opa dizkizue
sestaotar guztiei.

TXOKOA



Giro jatorra

Alameda las Llanas, 7 SESTAO